

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Bizikidetza eta Aniztasuna

2016an Gasteizen bizikidetza eta aniztasunaren arloko proiektuak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoaren ebazpena

Gasteizko Udaleko diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 14. artikuluan xedaturikoaren ildotik, argitara ematen dira Gasteizen bizikidetza eta aniztasunaren arloko proiektuak eta jarduerak garatzeko eman diren diru-laguntzak, onuraduna eta guztira emango den kopurua berariaz aipatuz; 2016ko irailaren 30ean erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak horiek ematea, 2016/0181-2361-48901 partidaren kontura :

Salburua Burdinbide auzo elkarte: 3.160,00 euro; Asociación Cultural de Teatro Kolectivo Monstrenko: 4.500,00 euro; CEAR-Euskadi: 4.473,20 euro; Euskal Autonomoen Elkarte- Asociación Vasca de Autónomos: 3.980,00. euro; ADSIS fundazioa: 4.500,00 euro; "Harresiak Apurtuz", etorkinei laguntza emateko GKEen Euskadiko koordinakundea: 4.000,00 euro; SARE: 4.500,00 euro.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 30ean

Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA